

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea

Ikusi egin da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 23.2 artikulua araberan, Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena dela alkate-udalburuari laguntza ematea nahiz beste organo batek eskuordetzen dizkion eskumenak erabiltzea.

Kontuan hartu da Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokiola Tokiko Gobernu Batzarrari eskumenak eskuordetzea, betiere, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.4 artikuluan ezarritako muga barruan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 22. artikulua emandako ahalmenak erabiliz osoko bilkurak hau,

EBATZI DU

LEHENENGOA. Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea Osoko Bilkuraren eskudantzia hauek:

a) Akzio judizialak eta administratiboak bideratzea eta Udalbatza defendatzea osokoaren eskudantziari dagokienez.

b) Udalaren egintzen kaltegarritasuna aitortzea.

c) Delako ekitaldi ekonomikoko eragiketen zenbateko guztiak batuta, aurrekontuaren balibide arrunten ehuneko hamarra gainditzen ez duten kreditu-eragiketak adostea, baina, Diruzaintzakoak alde batera utzita; horiek egitea ere Tokiko Gobernu batzarraren eskumena izango da soilik une bakoitzean bizirik dauden eragiketen zenbatekoen baturak aurreko ekitaldian kitatutako diru-sarrera arrunten ehuneko hamabosta gainditzen duenean. Hori guztia tokiko ogasunak arautzen dituen foru arauan xedatutakoarekin bat egiten da.

d) Legeak alkate-udalburuari esleitzen ez dizkion administrazio kontratazioak.

Ez dira inolaz ere eskuordetuko ondasun edo zerbitzuak emateko erabakien gaineko eskumenak, baldin eta erabaki horiek hartzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.3 artikuluan adierazitako gehiengo bereziak behar badira.

e) Obren eta zerbitzuen proiektuak onestea, betiere, horik kontratatzeko eskumena duenean eta oraindik aurrekontuetan jaso gabe daudenean.

f) Udalaren ondasunen gaineko emakidak esleitzea, ondare-legediak arautzen dituen ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea, ondarea besterentzea (eskumen horiek alkate-udalburuari esleitu ez zaizkionean) eta balio historikoa edo artistikoa duten ondasunen gainekoak, euren balioa edozein izanda ere.

BIGARRENA. Udal Antolamendurako Araudiaren 88. artikuluaekin bat, Osoko Bilkurak espresuki Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetutako gaien inguruko erabakiak hartu ahal izateko, Osoko Bilkurako Gai Batzorde Informatiboaren irizpena lortu beharko da lehenik, ez bada gaia jaso Tokiko Gobernu Batzarraren bilera baten gai-zerrendan sartu premiazkoa izateagatik; azken kasu horretan, erabakia hartu ahalko da, baina erabaki hori aditzera eman beharko zaio batzorde informatiboa biltzen den hurrengo saioan.

Azken kasu horretan, batzorde informatiboko kideren batek proposatzen badu, hurrengo osoko bilkuraren gai-zerrendan jaso beharko da gaia, Osoko Bilkurak kontrolari eta fiskalizazioari dagokionez dauzkan eskudantziak erabilita, adostutako premia-izaeraren egokitasuna azter dezan.

HIRUGARRENA. Argitaratzea erabaki hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Udal Antolamendurako Araudiaren 42. artikuluan xedatutakoa betetzeko, baita Toki Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari nahiz Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren, azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako aren 53.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko ere.

LAUGARRENA. Erabaki honen jakinarazpena ematea udal zerbitzuei, udal talde politikoen bozeramaileei eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialari.

Laudio, 2019ko uztailaren 5a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE